

■ SOSLAIA

Talentua eta zoramena

Bobby Fischer

Xake jokalaria

Atzo hil zen, Islandian, xakea betiko aldatu zuen jokalaria mitiko eta polemikoa.

64 urterekin hil da xakeak eman duen pertsonarik garrantzitsuen eta, segur aski, kiroletako historian bere espezialitate alde handienarekin menperatu duen jenioa. Robert James Fischer AEBetan jaio zen, Chicagon (1943), baina urte gutxi zituela aldatu zen Brooklynera (New York), ama eta arrebarekin. Gurasoak dibortziatu egin ziren, eta ama, eleaniztuna eta hezkuntza handiko judu alemaniarra bera, irakasle moduan lanean gogor aritu behar izan zuen familia aurrera ateratzeko. Fischerren aita, Gerhard Fischer fisikari alemaniarra, haien bizitzatik guztiz irten zen mutikoak 2 urte baino ez zituenean. Hala ere, azken urteotan, FBIko paperei sekretua kendu zaienean, jakin da segur aski haren benetako aita Paul Nemeny fisikari hungariar-judua zela, familiaren laguna. Paper horietan bertan, ikusi dute AEBek Fischerren gurasoak espiaitu zituztela; FBIrentzat, espioi komunistak izateko susmopean ziren. Beraz, Fischerren ukalezko jenialtasunaren atzean haurtzaro zail bat zegoen. Horren ondorioek eta gerra hotzean AEBetako zerbitzu sekretuek Fischer zelatatu eta erabili izanak pertsona desorekatua sortu zuten.

Bobby mutiko argia zen. Haren adimen koefizientea Einsteinena baino altuagoa zen, eta inoiz neurtutako en artean altuenetakoa. Argia zen, eta ez bakarrik xakerako. Adibide moduan: errusiera gaztea zenean ikasi zuen, bakarrik, errusieraz idatzitako xake liburuak ingelesezko itzulpenekin konparatu! Xakean bere talentu guztia erabili zuen, eta emaitzak bizkor heldu ziren: 14 urterekin AEBetako txapeldua izan zen, eta 15 urterekin historiako Maisu Handirik gazteena.

Baina etxean izandako arazoak eta FBIren susmoak eragin handia izan zuten haren bizitzan. 1958an, 15 urterekin, torneo garrantzitsu bat jokatzera joan zen Moskura, eta FBIk bidaia osoan espiaitu zuen. Handik aurrera, paranoia nabarmena erakutsi zuen Fischerrek. Bestalde, 14 urterekin eskola uztea erabaki zuen. «Irakasle haiek ezin zidaten ezer irakatsi», esan izan zuen beti. Nortasun gogor hori beti izan du berekin, onerako eta txarrerako. Bere izaeraren erruz, ez zuen lehenago munduko txapelketa irabazi. Torneoko baldintzekin ados ez bazegoen, alde egiten zuen.

Fischer azkenean munduko txapeldua izan zen Rejkiaviken (Islandia), 1972an. Finalera ailegatzeko partidari munduko xakelari onenak birrindu zituen, eta finalean Spasski handia ere erraz gainditu zuen. Xakearen historian inork maila horretan lortutako garaipenik liluragarriena izan zen hura. Baina munduko txapelketa hori ere bihurtu izan zen. Fischer ez zegoen ados finala jokatzeko jarritako baldintzekin, eta AEBetako Gobernuak jokatzeko estutu zuten. Kissingerrek berak deitu zion Islandiara joanarazteko. AEBek Bobby Fischer erabili zuten errusiarren kontrako propaganda gerran. Errusiarrek ziren munduko onenak xakean, eta Brooklyngo mutil batek zirrara eraginez gainditu zituen. Espioi izateko susmoak atzean geratu ziren, eta Bobbyren irudia esplotatu zuten estatu-batuarrek. Baina bere momenturik onenean, munduko txapelketa irabazi berriean, inor espero ez



■ NORTASUN AGIRIA

- **Izena:** Robert James Fischer.
- **Jaioterria:** Chicago (AEB).
- **Jaioteguna:** 1943ko martxoaren 9a.
- **Maila:** Maisu handia.
- **Elo puntua:** 2.785 (1972ko uztailaren).
- **Lorpenak:** Munduko txapeldua 1972tik 1975era.

Bere momenturik onenean egin zuen mugimendu arraroena: desagertu egin zen 20 urtez (1972-1992)

Xakea hark profesionalizatu zuen; entrenamenduak sistematizatu, kontrarioak eta aldaerak analizatu...

zuen mugimendua egin zuen: desagertu egin zen. 1972tik 1992era ia ia ez zen ezer jakin hari buruz, eta inork ez daki oso ondo zer egin zuen etanonegon zen 20 urte horietan.

1992an, legenda zenean, Fischer berriro agertu zen, Jugoslavian, Spasskiren kontra jokatzeko. AEBek blokeoa zeukaten aginduta Jugoslaviaren kontra, eta Fischerri gutun bat bidali zioten jokatzeari debekatuz. Hark paper horren gainean jendaurrean ttu egin zuen, jokatu, partida irabazi, eta handik aurrera AEBetako gaizkile zerrendetan sartu zen. Filipinetan ibili zen —han alaba bat dauka—, baina baita Hungarian eta beste hainbat tokitan ere. Fischerren lagun sarea zabala zen, eta urte askoan ez zuen arazo handirik izan. Baina irailaren 11ko atentatuaren ostean egin zituen adierazpenak gogorrak izan ziren, eta AEBek hori ez zioten barkatu. Nahiz eta jatorri judua eduki, Fischer antisemita bihurtu zen denborarekin, eta AEBei «juduek menperatutako herrialdea» deitzen zien. Irailaren 11ko atentatua justifikatu zuen, eta merezia zela gehitu.

Azken urteotan Fischerren adierazpenek ez dute logika handirik izan; pertsona desorekatu batenak ziruditen gehiago. Gainera, paranoia, antisemitismoa eta neonazismo mota bat nahasten ibili da. Nahiko garbi ikusten zen buruko gaixotasun baten biktima zela. 2004 bukaeran Naritako aireportuan atxilotu zuten. Japoniako Gobernuak erabakia garbi zeukan: Fischer AEBetara estraditatu zuten. Haren lagunek asilo politikoa eskatu zuten hainbat herrialdeetan. Xake munduak ez zuen sinetsi nahi Fischer erabili zuen gobernuak orain, burutik jota zegoenean, espetxean sartzeko asmoa izatea.

Azkenean, haren garaipenik liluragarriena ikusi zuen herrialdeak eskaini zion asiloa. Islandian Bobby Fischer pertsona maitatua zen. Islandiar askok esaten duen bezala, hark jarri zuen herrialde mapan, eta aste batzuetan hari esker mundu osoa Rejkiavikera begira egon zen. Azken hiru urteotan, Fischerrek ez du ezer berezirik egin edo esan. Noizean behin adierazpen polemikoak egin ditu, baina esan daiteke lasai utzi dutela. Rejkiaviken bere lagunek —Boris Spasski barne— bisitatu egin izan dizkiote, bere neska-lagunarekin denbora pasatu du, eta kalean jendeak ez du bereziki molestatu. Kazetariren bat saiatu da hura elkarrizketatzeko, baina lortu ez.

IRAILTZA XAKEAN. Fischerren testamenterik preziatuena taula gainean utzitakoa da. Bere partida fresko eta liluragarriak eredu dira, eta izango dira, xakelari askorentzat. Esan daiteke Fischerrek profesionalizatu zuela xakea. Harentzat, xakea ogibidea zen. Hark garatu zituen entrenamendu sistematikoak, aurkariaren analisi sakonak, ezusteko irekitzeak eta aldaeren analisi zehaztuak.

Haren izaera ere edua izan zuen jende askorentzat, eta ez bakarrik menedebaldeko Europan eta AEBetan. Errusian jende askok miresten duen Fischer. Kasparov-ek esan duen bezala, haren indibidualismoak eta eraginkortasunak miresmen handia sortu zuten mundu komunistan. Hark irabazi egin nahi zuen beti, eta ez zuen kontzesiorik egiten sekula.

Xakea ez litzateke egun dena izango Fischer barik. 1972an xake liburu eta taulen salmentek errekor guztiak apurtu zituzten. Jende asko hasi zen xakean Fischerri esker, eta azken urteotako xakeko figura handi asko hasi ziren Fischer imitatzen. Asko zor dio xakeak Brooklyngo mutiko hari. Mutiko hari behin elkarrizketa batean galdetu zioten zeintzuk zituen zaletasun. Erantzuna guztien gogon geratu da: «Nik egin nahi dudana gauza bakarra xakean jokatzeari da, beti». ■ JOSU TORNAV



Bobby Fischer, 1971ko abuztuan ateratako argazki batean. Urtebete geroago irabazi zuen Munduko Txapelketa. RFS / ASSOCIATED PRESS